

{ asteari zeharka begira } **Mikel Zubimendi Berastegi**

Handia ere txiki izan zelako

Ayuso andereak "Askatasuna" lelo hartuta arrasatu duela, Urkullu lotsagabe dabilela, herri txikia garela, txikiegia agian, eskala arazo bat daukagula, eta eskakeria ere ez dela gurean falta... kafe baten bueltan halakoak bota dizkit minkideak. Etsita baino gehiago haserre sumatu dut, hau dena aldatu nahi baina aldatzeko prest ez gaudela ustez, baxu, triste antzean. Normala ere bada, garaiaren lekukotza bat. Emozionalki ukituago gaude denok, mundua konpontzeko ideiarekin jabe garela uste eta mundu guztiak ideia horretaz paso egiten duela ohartuta. Ez dakit, xelebrekerietan kontzentratuago-edo.

Herri txikia garela, eta herri guztiak bezala eskaske-riaz betea, eta daukagun eskala hori zigor politiko moduko bat dela, gure potentzialak mozten dituen, ideia hori ez dut eskapa-tzen utzi nahi. Badago zer esana. Euskal Herria bezalako herri txikiekin pentsa-lariak eta filosofoak ez dira samurrak eta baikorrak izan. Mundu handiarekin eta ideia handiekin lilura-tuegi ibili dira. Handia ere txikia izan zela ahaztuta, eta den-denei igoeraren or-dua bezala erorketarena ere heltzen zaiela eta txiki-txi-kienari ere burua altxatzeko unea iristen zaiola.

Handien –eta orain igual denbora gutxi falta zaie ha-la izaten jarraitzeko– mespretxu eta ukazioaz askatu behar dute txikiek. Eta txiki izatearen konplexuaz ere bai. Ze gertatzen da txiki izatearen paperean denboran konfinatuta izan denak, bere indarrak nortasun horren determinazio eta defentsara bideratu dituenak, jada beharrezko edo beste gauza batzuk beharrezkoago di-renean, kosta egiten zaiola aldatzea. Eta bere existen-tziaren horizontea pobretzeko arriskua duela.

Erresistentzian bizi da txikia, eta erresistentzia nor-tasunetik nazio proiektu baten nortasun berrira jauzi egitea kosta egiten zaio. Hein batean, normala da, den-bora behar delako, eta zorte pixka bat ere bai, eta lan

asko. Ipuin, kantu eta kontakizun berriak sortu behar dira. Kosta egiten da politikaren substantzia eta musi-ka bere forma popularrenean ematea, politikaren fan-tasia eta indarra plaza publikotik ez urruntzea.

Lider politikoen kontakizunek garrantzi handia dute hemen, haurrei kontatzen zaizkien ipuinek bezainbes-tekoa. Orientatu ahal dute, beren mundu ikuskeraz eta balio nobleenez informatu. Elkarrizketa heldua, egiaz-koa, ahalbidetuko duen kultura politiko bat elikatu ahal dute. Aurkariak edo arazoak, aurrean dauzkagu-nak ulertzen eta aitortzen lagundu ahal digute, honela, aurreiritziek barnetik janda, gure usteak ez usteltzen.

Sinistu nahi dut, eta sinistuta nago, gure txikian, gu-re eskalan eta anbizio guztian, Euskal Herri berri baten etorkizuna pentsatu, imajinatu eta bizitzeko gai izan garen bezala, gai izango garela. Autodeterminazioaren

Ideologiari garrantzia eta esperantzari behar dituen bitarteko guztiak. Jendeari ahotsa eta boterea, eta umoreari eta ametsaren ildoari merezi duten errespetua

ekologia bat, bere espazio eta tresnekin sortzeko gai izango garela, independentziaren ateak zabalduko diz-kiguna. Gure herria asko hazi dela eta bere buruarekin elkarrizketa inteligentea eta kategoriazkoa egiteko gai dela. Bisioa berreskuratuko dugula. Gehiago eraikitze-ko gehiago banatuz, irabazleak dena hartuko ez duen jokoan, produktiboagoa, sozialki berdina, herrita-rrak zoriontsuago nola egin erakutsiko duena.

Herri txiki honen etorkizuna orain ari da forma har-tzen, izango dituen balio eta lehentasunak jokoan dau-de. Sinistu nahi dut ideologiari garrantzia emango zaiola eta esperantzari behar dituen bitarteko guztiak. Jendeari ahotsa eta boterea, eta umoreari eta ametsa-ren ildoari merezi duten errespetua. •